2011ko MARTXOA

Igeldoko

31. alea

ORRI INFORMATIBOA

Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfonoa.: 943-31 30 30 e-posta: infogeldo@euskalerria.org

AURKIBIDEA

Gabonetako ekintzak **/2-3**

Kontu Kontari:
Onditz Urruzmendi Donosti Berriko txirrindularia **/4-6**

Herrian ze berri?:
Ieltxo kultur taldearen aurkezpena, gazteen bilera, Inauteriak Igeldon, Emakumeen afaria, Din din elkartearen batzorde berria, Jai Batzordeko bilerak... **/7-8**

Kaixo herrikide!!!

Martxoarekin batera, zure etxean gara berriz ere, aurreko bi hilabeteetan herrian gertatutakoaren berri emateko asmoz. Aipatzekoa da, Gabonetan ospatu diren ekintza ezberdinak: urtero bezala Kixmi aisialdi taldeak Olentzeroren ongi-etorria, eskea, merendola... antolatu zituen. Olentzerok eskolara ere egin zuen bixita eta umeek gogoz ospatu zuten bere etorrera. Horrez gain, Urte Zahar Egunean brindisa egin eta manifestua irakurri ziren presoen eskubideen alde.

Horrez gain, eskuartean duzun ale honek datozen egunetan herrian izango diren ekintzak biltzen ditu. Besteak beste, herriko gazteek eguneko festa antolatu dute Inauterietako larunbatean, hau da, martxoaren 5ean. Eta martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna ere gainean dugu, eta Emakume afariak ez du hutsik egingo aurten ere. Martxoaren 12an izango da, hain zuzen. (Ekintzei buruzko informazio gehiago azken orrian).



Kixmirekin,
Gabonetatik Gorlizera

Bi hilabete igaro dira Kixmi aisialdi taldeak Gabonetako plangintza burutu zuenetik. Plangintza eskeko entsaio eta tailerrekin hasi zuten. Ekintza horietan inguratutako haur kopuruarekin baikor agertu dira aisialdi taldeko begiraleak.

Eskeko entsaioak egin ondoren, Gabon Egunean eta Urte Zahar Egunean baserriz baserri ibili ziren, Olentzero eta traktorearekin batera. Gabon Egunean, Olentzerori ongi-etorria egin zitzaion herriko plazan.

Eskean ateratako haurrek, merendola bikainaz gozatzeko aukera izan zuten Din din elkartean eta gazteek berriz, afari eder bat egin zuten Nikolasen.

Apirila hasieran, asteburu pasa doaz Gorlizera. Bertan bizitakoa hurrengo orri informatiboan ikusteko aukera izango da.

Presoen eskubideen alde,
manifestua eta brindisa
Urte Zahar Egunean

Horrez gain, Gabonetan Euskal Preso Politikoak gogoan izan ziren

Igeldon eta "Dagozkien eskubideen alde", hainbat ekintza egin ziren. Urte Zahar Egunean, esaterako, Igeldoko Pelota Eskolak, Kixmi asialdi taldeak, Itsasaurre elkarteak, Ezker Abertzaleak, Herri Kontseiluak eta Jai Batzordeak manifestu bat irakurri, manifestua Plazan jarri eta topa egin zuten bertan bildutako herritarrekin batera. Euskal Preso Politikoek dituzten eskubideak behingoz errespetatuak izan daitezen eskatu zuten.

Eta Urte Zahar Egunekoa ez da izan igeldoarrek presoen eskubideen alde egindako aldarrikapen bakarra. Urtarrilaren 8an Bilbon izan zen manifestaziorako autobusa ere antolatu zuten eta bertan izan ziren Igeldoko 20 bat lagun. ■

Zenbat fandango,
zenbat lanbada,
zenbat izerdi!
Trikitixaz gozatuz,
jarri gaituzu dantzari!

Eskerrikasko Imanol!

ELKARRIZKETA: ONDITZ URRUZMENDI - DONOSTI BERRIKO TXIRRINDULARIA

"Kadeteetan aurten hasi naiz eta ez dut maila asko ezagutzen, datorren urtea iristeko gogoa daukat"

Onditz Urruzmendik, 15 urte bete berri dituen igeldoarrak, txiki-txikitatik izan du afizio txirrindularitza eta joan den urtetik Donosti Berri taldean dabil lehiatzen, Donostian dagoen talde bakarrean. Orri Informatiboa berarekin bildu da kirol hau nola bizi duen eta zein helburu eta amets dituen ezagutzeko. Aurten kadete mailan lehenengo urtea du eta ez du maila ondo ezagutzen. Datorren urtea ona izatea espero duela aitortu du.

Onditz Urruzmendi, Igeldoko etorkizuneko txirrindulari profesionala.

Noiztik eta nolatan zabiltza txirrindularitzan?

Bizikletan betidanik ibili izan naiz, txikitatik gustatu izan zait eta lehiatzen-eta lehengo urtean hasi nintzen. Aratzek (anaiak), 2008ko Tourra bukatu zenean, karreterako bizikleta bat erosi zuen. Gerora ez zuen erabiltzen eta nik bizikleta hori erabili eta talde batean apuntatzea erabaki nuen.

Zein taldetan sartzea erabaki zenuen?

Donosti Berrin, Donostian dagoen talde bakarrean. Talde indartsua da Gipuzkoa mailan, Ampo eta Caja Ruralekin batera.

> "Aurten, orain arte pistan ibili gara eta ondo moldatu naiz. Gainera aurten ondo ibiltzen direnak urte bat zaharragoak dira eta ni beraien artean ibili naiz"

Zein mailatan lehiatzen duzu?

Joan den urtean infantiletan ibili nintzen, bigarren urtekoa nintzen. Aurten kadeteetara pasa naiz eta alde handia dago. Lehengo urtean astean bitan entrenatzen genuen eta orain hirutan eta entrenamenduak gogorragoak dira. Karreretan ere aldea dago. Adibidez karreteran, infantiletan karrerak 15 km-koak dira eta zirkuituak dira beti. Kadeteetan, berriz, 60 km ingurukoak aldapekin eta guzti eta normalean ez dira zirkuitoak izaten.

Nolakoak dira zuen txapelketak?

Aurrena, neguan, abendutik otsailera arte, pistan ibiltzen gara eta Moyua izeneko Txapelketa bat izaten dugu 10 aste irauten dituena. Astebururo izaten ditugu karrerak. Eta gero Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak izaten ditugu.

Otsailetik udara partera arte, berriz, karreteran ibiliko gara. Eta hemen antzeko zerbait izaten da:

Onditz infantiletan ibili zen lehengo urtean eta emaitza onak lortu zituen hainbat karreratan. Argazkia, Zarautzen hirugarren geratu zenekoa da.

karrerak astebururo eta Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak.

Zer moduz moldatu zara orain arte?
Joan den urtean, lehenengo karreran hirugarren egin nuen. Ondo nengoen, baina niretzat gauza berria zen. Beste karrera batzuetan 5-6 artean ere ibili nintzen, baina zorte txarra ere izan nuen: karrera batean pintxatu, beste batean kanbioak puskatu... eta Ibaetako karreran aurrena nindoala bota egin ninduten 40 metro falta zitzaizkidanean.

Aurten, orain arte, pistan ibili gara eta ondo moldatu naiz. Gainera aurten ondo ibiltzen direnak urte bat zaharragoak dira eta ni beraien artean ibili naiz. Moyua Txapelketan esateko, 6-7garren egin nuen karrera batzuetan eta sailkapen orokorrean 11garren geratu nintzen. Tafallan, 13garren egin nuen orokorrean, eta karrera batean 7garren. Hori

> “Hurrengo urtean, pistan, Gipuzkoako Txapelketa edo Moyua Txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake”

bai, maila hau oraindik ez dut gehiegi ezagutzen, karreterako karrerak orain hasi ditugu eta datorren urtean hobeto ibiliko naizela espero dut. Datorren urtea iristeko gogoa daukat.

Ba al duzu txapelketa zehatzen bat irabazteko gogoa?
Hurrengo urtean, pistan, Gipuzkoako Txapelketa edo Moyua irabazi nahiko nuke.

Zer nahiago duzu, pistan ala karreteran ibili?
Pistan ondo ibiltzea errazagoa da,

> “Pistan ondo ibiltzea errazagoa da, jende gutxiago dago, baina karretera politagoa da”

jende gutxiago dago, baina karretera politagoa da.

Pistako bizikletan ibili edo karreterakoan aldea dago, ezta? Orain arte ibili al zinen sekula pistakoan? Zer moduz moldatu zara?
Aurretik ez nintzen inoiz ibili pistakoan eta aldea dago, pistakoak frenorik eta kanbiorik ez du eta hasieran arraroa egiten da. Baina segituan ohitzen zara eta gero erraza da.

Nolako entrenamenduak egiten dituzue? Gimnasioan edo korrika aritzen al zarete?
Karreteran ez dugu gehiegi entrenatu oraindik, baina adibidez, Donostitik Zumaiara edo Aizarnazabalera joaten gara. Pistan, berriz, batzuetan 3 serie 20ko egiten ditugu. Beste batzuetan serie motzagoak, baina azkarrago... Egunaren arabera izaten da. Astelehen batzuetan, adibidez, karreraren hurrengo eguna baldin bada, mantsoago aritzen gara, lasaiago aritzen gara errekuperatzeko.

Gimnasioan zerbait egin genuen hasieran, baina hor gehiago jubeniletatik aurrera da. Eta korrikarik ez dugu egiten.

Hemen, Igeldon entrenatzen al zara? Hemengo Tourmaleta (Ibaetatik) igoa al daukazu?
Ez, normalean ez naiz hemen ibiltzen, baina *Tourmaleta* igo dut bai mendikoarekin; karreterakoak desarroiloak eta motzagoak ditu eta zaila da.

Elikadura aldetik, jarraitu beharreko dietarik ba al duzue zuek?
Ez, oraindik ez. Karreraren bat daukagunean, adibidez igandean baldin bada, esaten digute larunbatean

Onditz eskuinetik hasita hirugarrena, joan den urteko karrera batean.

pasta afaltzeko eta igandean pasta bazkaltzeko, baina besterik ez.

Denbora dexente kenduko dizu txirrindularitzak... Ikasketak ondo al daramatzazu? Etxean kejarik ba al da?
Eskolatik 15:00etan ateratzen naiz, 15:30etarako etxean egoten naiz eta 18:00etan joaten naiz entrenatzera. Denbora badut eta oraingoz ondo noa, azkeneko azterketetan ez dut bat ere suspenditu. Etxean ondo ikusten dute. Animatzen naute eta ikustera ere etortzen dira.

Neskak ere aritzen al dira zuen mailan? Orokorrean, ez dute oihartzun haundirik, ezta?
Gure mailan neskak ere ibiltzen dira, uste nuena baino gehiago gainera eta batera egiten ditugu karrerak. Gero beraiek beraien sailkapena izaten dute eta guk gurea.

Baina profesionaletan ez dira ia entzuten. Leire Olaberriaz zerbait entzun izan da eta Somarribaz lehen baita ere. Azken aldian, ordea, ezer ez. Lehengo urtekoTourra zeinek irabazi zuen ere ez dakit.

> “Euskal Herriko txirrindulariak ondo ikusten ditut. Hain herri txikia izateko profesional asko dago, baina Tourra eta irabazteko orandik falta da”

Txirrindularitza profesionalari begira, nola ikusten dituzu Euskal Herriko txirrindulariak?
Ondo ikusten ditut. Hain herri txikia izateko profesional asko dago, baina Tourra eta irabazteko oraindik falta da.

Eta Haimar Zubeldia usurbildarra nola ikusten duzu?
Gaizki ez, baina pixka bat zaharra dago. Orain Euskal Herri mailan Igor Anton dabil puntan eta bestela, Andy Schleck, Alberto Contador ere berriz bueltan da...

Zein da zure txirrindulari gustokoena?
David Etxeberria, baina erretiratuta dago. *Operacion Puerto* izan zenean hor gelditu zen eta 2006tik ez du jarraitzen. Liberty taldean zegoen eta Euskaltelen ere ibili zen.

Zein adinekin pasatzen da txirrindulari bat profesionaletara, hau da, noiz arte itxaron behar du Igeldok Onditz profesionaletan izateko?
Profesionaletara 22-23 urterekin pasa behar da bestela ez dago zer eginik. Adinik egokiena 28 urte izaten dira eta 33tik aurrera txirrindularia zaharra da. Baina batzuk jarraitzen dute eta ondo ibiltzen dira, Samuel Sanchezek esateko, 33 urte ditu eta ondo dabil.

Nahiko al zenuke horraino iritsi? Oso kirol gogorra da...
Nahi bai, baina... oso oso zaila da. Oso urruti ikusten dut. Eta egia da oso gogorra dela, baina prest egongo nintzateke. ■

Kultur Etxearen mantenimendua
Kultur Etxearen garbitasunari dagokionean, taulan jarritakoa errespetatzen ari dela dio Herri Kontseiluak, hau da, taldeka eta txandakako sistema. Hala ere, beheko pisuan, neguko arratsalde hotz eta euritsuetan haurrak meriendatzen dutela eta, ez da oso txukun mantentzen eta antolatu beharraz hitz egin dute. Gurasoekin hitz egingo dute. Mantenimenduari dagokionean, sarrera nagusiko zerraila aldatu da, kontrabentanak eta leihoak konpontzeko asmoa dago eta baita fatxada margotzekoa ere. Azkenik, herritarrei e-mail helbideak eskatzea planteatu dute, horrela edozer ohar email bidez zabaltzeko aukera izango litzateke. Bulegorako inpresora multiusos bat ere erosi da.

Pilotegi bidean, seinalea
Pilotegi bidean, hormigoia gastatzen ari dela aipatu du Herri Kontseiluak eta karabanak eta kamioiak hortik ez igotzeko, bidearen hasieran seinale bat jartzea komeni dela. Bi gai hauen berri izateko Udaletxera idatzi bat entregatuko da.

Espaloietan barandila
Espaloietan barandila jartzea beharrezkoa dela ikusiz, Udaletxera idatzi bat egiteko asmoa dago. Aurrez, Bionda jartzea eskatu zen. Honekin batera herritik kanpinera bitarteko zatian espaloia egitearen beharra berriro ere adieraziko da.

Herri Kontseilua berritzen
Herri kontseiluaren berritze prozesua martxan da eta epe motzean gai honen berri izango duzue etxean. Berritze prozesuaren metodologia garatua dago eta horren inguruko informazioa herritar guztien etxeetan izango da laster. Bertan, herritarren aportazioak jasotzeko deialdia ere izango da eta IHKk herritar guztiei dei egiten die prozesu honetan parte hartzeko, "benetan garrantzitsua baita herri ordezkaritza bat izatea egunerokotasunean ditugun arazoei aurre egiteko eta herritarron eskaerak gauzatzeko", azaldu du.

Batzorde berria osatzen duten kideak eta aurreko batzordetik aldatu diren lau kideak.

Din din elkarteak batzorde berria du

Otsailaren 20an Din din elkarteko batzarra burutu zen. Bertan, urteko balantzea egin zen: diru mugimenduak, egindako konponketak, antolatutako ekintzak, elkartearen betebeharrak, lege eta arauak...

Orduko batzordeak egindako lana zoriondu eta kide berrien aurkezpena ere egin zen. Batzorde berria honakoek osatzen dute: Ana Cruz, Mirari Barrondo, Begoña Eizmendi, Jose Manuel Izagirre, Xabi Heredero, Juan Luis Cruz, Virginia Zarco eta Iñigo Balda.

Jai Batzordeko bilerak, astelehenetan
Jai Batzordeak jakinarazi duenez, herriko festak prestatzeko astelehenero bilerak izango dira 21:00etan Kultur Etxean. Herritarrek ateak irekita dituztela gogorarazi dute eta animatzeko dei egin dute.

2.518 euro bildu dira Igeldon, preso eta senideei laguntzeko
Urtero bezala, aurtengo Gabonetan ere, Euskal Preso Politikoei laguntza ekonomikoa emateko, diru bilketa egin du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Igeldon. Helburua da preso politikoek eta euren senide zein lagunek sufritzen dituzten egoera latzak eramangarriagoak egin ahal izatea. AAMk jakinarazi duenez, gure herrian erakutsitako elkartasunari esker, 2.518 euro lortu dira!

Torturaren aurka kontzentrazioa, Igeldon
Otsailaren 13an 30 urte bete ziren Joxe Arregi zizurkildarra torturatuta hil zutenetik. Hori gogoan, Torturaren Aurkako Eguna izaki, Igeldon kontzentrazioa egin zen *Tortura ez* lelopean, Euskal Herriko herri ezberdinetan egin bezala.

INAUTERIAK ETA EMAKUMEEN AFARIA, MARTXOAN

Herriko gazteak alternatibak martxan jartzeko, biltzen hasi dira astero (asteazken edo igandetan).

Gazteak herria dinamizatzeko gogoz daude eta Inauterietan festa izango da

Igeldoko hainbat gaztek bilera egin zuten joan den otsailaren 20an. Herrian gazteei zuzenduta gauza handirik ez dagoela ikusita, alternatibak sortu eta herrian dinamika bat martxan jartzeko asmoa azaldu zuten, bestek beste. Horri lotuta, Elizaren atzeko lokalak duen garrantzia ere azpimarratu zuten eta gazteei eta herriari begirako erabilpena emateko gogoa azaldu zuten. Herri Kontseiluko bi kide ere izan ziren bileran eta egoki ikusi zuten proposamena, eta helburua hori izanik, Herri Kontseiluak laguntzeko prestutasuna duela jakinarazi zuten. Guztia martxan jartzeko, gazteak biltzen hasi dira astero (asteazken edo igandetan). Bilera irekiak dira, beraz, parte hartu nahi duten guztiek dute azaltzeko aukera.

Eta askorik itxaron gabe, Inauterietan eguneko festa antolatu dute Igeldon!

Martxoaren 5ean, Inauteriak Igeldon!!!

- **12:30etan,** trikipoteoa Plazatik abiatuta.
- **14:00etan,** gazte bazkaria Din din elkartean.
- **17:30etan,** gazte jolasak Plazan.

MOZORROTU ETA PARTE HARTU!!!

*Bazkariko txartelak martxoaren 3ra arte egongo dira salgai Txapelan, 12 euroan.

Ieltxo kultur taldea martxan da

Otsailaren 13an, Kultur Etxea baso bihurtu eta giro goxoan Ieltxo kultur talde berriak aurkezpena egin zuen, dozenaka herritarren aurrean. Taldea osatzen duten kideen berri eman eta eskuartean dituzten ekintzak azaldu zituzten. Hasteko, zinea eta gastronomia lotuko dituzte pelikula emanaldien bidez: martxoaren 20an *Estomago*; apirilaren 8an *Xaguarena* (umeentzat); apirilaren 10ean *Julie y Julia;* maiatzaren 27an *Charlie y la fabrica de chocolate* (umeentzat); maiatzaren 29an *Chocolat*. Umeentzako pelikulak 17:30etan izango dira eta helduentzako 19:00etan.

♀ Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna

Adi emakume!
Beti lan ta lan... Ba, festarako garaia ere iritsi dun! Aurten ere gure eguna ospatuko dinagu!

Martxoaren 12an, Emakume afaria!

Non: Nicols hoteleko jatetxean
Ordua: 20:30etan Plazan edo 21:00etan Nicolsen.

ANIMATU ETA AZALDU!
GIRO BIKAINA IZANGO DINAGU!
TRIKITIXA, KANTUA, DANTZA…
IAJAJAAAA!!!

Apuntatzeko, Txapelan edo deitu ezan telefono honetara: 645 73 57 62 (Larraitz).
(Azken eguna, martxoak 4, ostirala).

Igeldoko Herri Kontseilua

Laguntzailea: DONOSTIA KULTURA